

Gure enpresa hasteko diru sarrerak lortzeko Crowdfunding bat garatuko dugu. Proiektu honen bidez, gure inguruko hornitzaileen lana garatuko dugu eta horretaz aparte, gure enpresa hasteko behar ditugun diru-sarrerak lortuko ditugu. Gainera, publizitatea lortzeko helburuarekin, bertako jendearekin kontaktatuko dugu gure produktua erakutsi dezaten.

Horretaz aparte, diru-laguntza batzuk eskatu beharko ditugu enpresa hasiera batean hasteko, gure azken helburua autofinantzaketa delakoan. Hau da, ekintzaile izateagatik eta produktu jasangarriak ekoizteagatik sektore publikoak ematen dituen diru-laguntzaz baliatuko gara.

Denda fisikoa ireki ondoren, gure diru sarrera nagusiak bezeroak izango dira. Beste hitz batzuetan, aktiboen salmentaz baliatuko gara. Guk ekoiztako produktu pertsonalizatuak salduko ditugu eta hortik lortuko ditugu gure diru-sarrera guztiak. Gainera, gure produktuak izango duen pertsonalizazio maila eta jasangarritasunaren ondorioz, prezioak ez dira finkoak izango, gure bezeroak eskatzen duenari moldatuko delako.